

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Ostirala, 2010eko abenduaren 24a. VIII. urtea. 2.146. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

‘Aizkora.com’, aizkoraren 60 urtetako apustuen eta txapelketen bilgune

Antton Espelosinek orain gutxi kaleratutako ‘Aizkora. Apustuak eta Txapelketak, 1949-2009’ liburua harira sortutako webgunea aurkeztu dute Leitzan

Gabriel Saralegi aizkolarari ohi leitzarraren laguntza izan du Espelosinek aurkezpenean; «lan hau beharrezkoa zen. Datu eta anekdota ugari biltzen dira bertan», dio **07**



Antton Espelosin eta Gabriel Saralegi *aizkora.com* atariko aurkezpenean. A. IMAZ

Ogi Berri herrian geratzeko Udalak 9. Ola industriagunea urbanizatuko du

Amezketako osoko bilkuran onartu zuten neurria datorren urteko aurrekontuekin batera; bestalde, 2011eko egutegia eta udal aldizkaria banatu ditu udalak egun hauetan **04**



Egutegian ikusi daitekeen argazkietako bat. SARA GOMEZ

‘Segi jotzen’ en emanaldi berezia eskainiko du Poxpolo ta Konpainiak

Tolosako pailazoez ikuskizun berria dute eta etzi estreinatuko dute Leidorren 12:00etan eta 17:00etan; berrikuntza ugari dituztela diote **02**

Zatoz HITZAko bulegora zure mahai egutegiaren bila!



Irudi ILEA PAINOEGIA

Festak ondo pasa!

Eskolapiotako lorategia 1
Tel.: 943 674 526
TOLOSA

www.lurlan.org

lurlan@lurlan.org



Boulevard 7, 2003 Donostia
Denda - tel.: 943 42 86 48 • Bulegoa - tel.: 943 69 20 54

‘Segi jotzen’ lan berria aurkeztuko du Poxpolo ta Konpainiak, etzi

Leidor aretoan bi saio eskainiko dituzte, bata 12:00etan eta 17:00etan bigarrena; berrikuntzez bete izango da

Iñigo Terradillos Kultura

Poxpolo ta Konpainia lan berriarekin datoz. *Segi jotzen* du izena ikuskizun berriak, eta etzi izango da estreinaldia, Leidor aretoan, 12:00etan eta 17:00etan.

Poxpolo pailazoarekin (Iker Galarza) batera pertsonaia ugari igoko dira taula gainera, eta guztien artean, «emanaldi berezia» eskainiko dute. Sketch eta abesti berriez osatuko dute saioa, eta Gabon kutsua ere izango du hainbat unetan. «Udan eskaini ge-

nuen *Segi jotzen* emanaldia, baina, etzi Leidorren izango den saioa desberdina izango da, berrikuntza ugariarekin», azaltzen du Galarzak.

Gainera, etziko saioa bereziki Tolosarako egin dutela ere esan daiteke. «Denbora asko hartu dugu saio polita osatzeko, eta Leidorrerako propio prestatu ditugun sketch batzuk ere egongo dira, eta horiek bertan baino ezin-gi dute ikusi».

Jotzen jarraitzeko asmoz

Mokolo pailazoa (Iñaki Odriozola) hil zenean golpe handia izan zen taldearentzat. Horregatik, zailak izan zituzten taldearen etorkizunaren inguruan. Azkenean, ordea, antzeztan, irribarreak sortzen eta jotzen segitzea erabaki zuten. Hortik dator, hain zu-



Poxpolo pailazoa emanaldian parte hartzen duten pertsonaiekin. HITZA

zen ere euren lanik berrienaren izenburua.

Taula gainera igotzen jarraitzeko erabakia begi onez hartu dute Poxpolo ta Konpainiaren zaleek. Horren adierazle da emanaldiak izan duen arrakasta, izan ere, saio bakarra aurreikusi zuten, eguerdikoa, baina azkenean arratsaldean bigarrena jarrai beharra izan zuten. Lehen saiorako sarrerak segituan saldu ziren, eta

bigarrenarako sarrera batzuk geratzen dira oraindik. «Oso polita da horrelako harrera beroa izatea, eta jarraitzaile finak eta maite gaituztenak ditugula sentitzea; gu emanaldi atseginak prestatzen saiatzen gara, eta jendea harrituta uzten, eta zaleek esker-tzen dute egiten duguna, horregatik ez dugu inor saioa ikusi gabe gelditzerik nahi, eta bigarrena jarri dugu», azaltzen du Poxpolok.

↓ Datuak

‘SEGI JOTZEN’

- **Non eta noiz.** Leidor aretoan, etzi, 12:00etan eta 17:00etan.
- **Sarrerak.** Leidorreko leihatilan eskura daitezke, edo bestela kutxa.nethelbidean.
- **Emanaldia.** Sketch eta abesti berriak, Gabon kutsuarekin.

Irudia > Gizartea

ATZEGIKOEN EGITEKOA EZAGUTUZ

Tolosaldea LH Institutuko 110 ikasle eta irakasle Atzegiko Itsaso Armas teknikariak eman zuen hitzaldian egon berri dira. Adimen urritasuna duten pertsonen lan egiten duen taldearen ekintza eta helburu nagusiak azaldu zizkien, eta boluntariorik zaren berri ere eman zien. Halaber, gazteak animatu zituen parte hartzera, «esperientzia benetan aberatsa delako, bai adimen urritasuna dutenentzat, bai eta boluntarioentzat ere». HITZA



→ Laburrak

Abenduaren 24 eta 31n ez dute kartoia bilduko

GIZARTEA > Tolosaldeko Mankomunitateak ez du dendariei zuzendutako kartoia bilketarik egingo abenduaren 24ean eta 31n. Beraz, egun horietan kartoia atera ez dezaten eskatu dute.

Napoleoni buruzko erakusketa Aranburun

KULTURA > *Napoleonetik bizi garen mundura* antzerki bidezko bisita egingo dute urtarillaren 8an, 17:30ean. Aranburun jarrita dagoen erakusketa eza-gutzeko modu berezia izango dela adierazi dute.

Iragarki laburrak

SALGAI

- **Etxebizitza.** Leitza 100 m²-ko pisua salgai. Norberak bere gustura jartzeko moduan. 687 40 52 33.
- **Ekonomia.** Lakuntza markako ekonomia, Clasica modelo. Egoera onean eta oso gutxi erabilia. 649 51 09 41.
- **Plantetako enkofratua.** Karrerak, zertxak, puntalak, pos-

tetako txapak, taberoak 200x50 saltzen dira. Modu onean. 667 41 88 75.


■ **Motorra.** Suzuki RMZ 450-a salgai. 2006. urtekoa eta egoera oso onean. 635 75 09 15.

■ **Eskopeta.** Bereta markako eskopeta railatua salgai. Oilagorretarako aproposa, bi kanoi jokurekin. 2007koa da eta oso gutxi erabilia dago. Harrema-

netarako telefono zenbakia: 635 75 09 15.

LANA

■ **Emakumea.** Emakume eskaldun autonomoa eskaintzen da Tolosa inguruan astelehene-tik ostiralera goizetik eguerdira, etxeko lanak, umeak, bazkariak eta abar prestatzeko. Deitu 607 90 21 40 zenbakira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Ekitaldi eta jarduera ugari eskualdean, inor asper ez dadin

Haur guztiak oporretan daude, hori dela eta hauei zuzendutako ekitaldi ugari antolatu dituzte Tolosaldean

Erredakzioa

Atzotik oporretan dira eskualdeko haur guztiak. Izan ere, ikastetxe gehienetan eta lantoki askotan atzo eman zieten hasiera Egu-berrietako oporraldiari. Hau kontuan hartuta, gero eta herri gehiagotan antolatzen dituzte jarduerak eta ekitaldiak, tarte hauek betetzeko, eta ez aspertzeko.

Ekitaldi gehienak etxeko txikienei eta gaztetxoek zuzenduta baldin badaude ere, badira helduak entretenitzeko pentsatuak ere. Horren adibide, gaur bertan Txintxarri abesbatzak eskainiko duen emanaldia. Alegiako elizan, meza nagusiko ospakizunetan parte hartuko dute. Anoetan berri-iz, txistulariek kalejira egingo dute herritik barrena, 12:00etatik aurrera.

Ibarran bertso saio bikaina

Ibarrako hainbat eragilek antolatu, bertso jaialdi bikaina izango



Astehenean zabalduko ditu ateak Tolosako Zerkausiko Haur Parkeak. E. EZEIZA

da etzi Belabieta kiroldegian. Maialen Lujanbio, Jon Maia, Sus-
trai Colina, Amaia Agirre, Ando-
ni Egaña eta Sebastian Lizaso
izango dira taula gainean
17:30etik aurrera.

Ibarran data hauetan ospatzen
den bertso saioa gero eta egonkor-
tasun handiagoa ari da hartzen.
Aurtengoa hirugarrena izango

baita. Aipatu bezala, Ibarrako
hainbat eragile aurkitzen dira
jaialdiaren atzean: Eneko Aritza-
ren Lagunak kultur elkarteak, Po-
toxtotx bertso eskola, Bartola jai
alternatiboaren batzordea eta Iba-
rrako Gazte Asanblada. Bakoi-
tzak bere ardura hartu ditu eta
auzolanean antolatu dute bertso
saioa.

Sarrerak aurrez erosi daitezke
8 eurotan, ondorengo lekuetan:
Ibarrako Zubiaurre, Atari, Danon
Txokoa eta Lurdes liburu-denda;
Tolosako Denak eta Rakun;
Anoetako Itzulini; Villabonako
Iratzarren; Leitzako Torrean;
Alegiako Ikxiñan eta Beasaingo
Arranon. Egunean bertan, 10 eu-
rotan erosi ahalko dira.

↓ Egu-berrietako ekitaldiak

ALEGIA

- **Abenduak 25, bihar.** Txintxarri Abesbatza kantuan ariko da 11:15eko meza nagusian.
- **Abenduak 27 eta 28.** Gabonetako pilota topaketak 16:00etatik aurrera.
- **Abenduak 29, asteazkena.** Gabonetako pilota topaketak 16:00etatik aurrera. Finala Amezketan jokatu da.
- **Abenduak 31, ostirala.** San Silbestre herri krosa 16:00etan.

ANOETA

- **Abenduak 25, bihar.** Anoetako txistulari taldearen kalejira 12:00etatik aurrera.
- **Abenduak 28, asteartea.** Txuri-urdinera irteera egingo dute. 10:30ean aterako da autobusa farmazia aurreko geltokitik, eta 14:00etan itzuliko dira Anoetara.

IBARRA

- **Abenduak 26, igandea.** 17:30etik aurrera bertso jaialdia izango da Belabieta kiroldegian. Lizaso, Egaña, Lujanbio, Agirre, Colina eta Maia ariko

dira kantuan taula gainean.

Sarrerak aldeztu aurretik nahiz bertan erosi ahal izango dira. Aurretiaz 8 eurotan, eta egunean, 10ean.

■ Abenduak 27, astelehena.

Tatxin eta Tatxan pailazoaren emanaldia izango da 11:30ean, Benito Izagirre kultur etxean.

■ **Abenduak 28, asteartea.** Elvi Sabel hiztunaren emanaldia 11:30ean, Benito Izagirre kultur etxean.

■ **Abenduak 29, asteazkena.** Gabonetako euskal ipuinak saioa Ixabel Milleten eskutik. 11:30ean kultur etxean.

■ **Abenduak 30, osteguna.** Ali, haren amona eta alfonbra hegalaria antzezlanak Txalo taldearen eskutik. 11:30ean kultur etxean izango da hau. Kutxa Gizarte Ekintzak sustatuta.

■ **Oharra.** Hilaren 27tik 30era, eta urtarilaren 3tik 4ra, goizez bakarrik erongo dira zabalik Kultur Etxea eta Liburutegia. 09:30etik 14:00etara.

IRURA

- **Abenduak 27, astelehena.** Hipo eta Tomax pailazoaren *Bel-durraren etxea* lana ikusgai

izango da Kulturuneko areto nagusian, 17:30ean.

■ Abenduak 28, asteartea.

Inoxende eguna gaztelekuan 17:00etatik 19:00etara.

17:30ean berriz, Diskojoia pilotalekuan, haur eta gaztetxoentzako dantza eta jokoekin.

■ Abenduak 29, asteazkena.

16:00etatik 20:00etara talo-gintza ikastaroa. 17:30ean, Ane Monna, Oskola eta karramarroi taldearen eskutik, *Harritxu Maritxu* antzezlanak Kulturunekoan.

■ **Abenduak 30, osteguna.** Gaztelekutik txangoa Bilboko Egu-berrietako Haur parkera. 17:30ean Xake partidak plazan (parte-hartze irekia).

■ Abenduak 31, ostirala.

10:00etatik 13:00etara egongo dira irekita. Ludoteke eta Liburutegia.

TOLOSA

- **Gazte astea.** Topagunean hilaren 26tik 30era bitartean ospatuko dute. Honen baitan,

hilaren 26an, ping-pong eta futbolen txapelketa egongo da; hilaren 27an, Wii eta Play Station txapelketak jokatu dira; 28an, Makillaje tailerra izango da; 29an Euskal selekzioaren partida ikustera irteera egingo dute; eta azkenik hilaren 30ean, txokolatada eta merendola egingo dituzte. Izen-emateak Topagunean bertan egin daitezke.

■ **Gabonetako haur parkea.** Hilaren 27tik 30era 11:00etatik 13:30era, eta 16:30etik 20:00etara, egongo da zabalik Zerkausian.

■ Egu-berrietako kontzertua.

Igandean, hilaren 26an, Hodeiertz abesbatzak Santa Klara elizan Egu-berrietako kontzertua eskainiko du 19:30ean hasita. Hodeiertz abesbatzaren barruan, Hodei Truk Samaniego eta Hirukidek ere abestuko dute estreinaldi batzuk eskainiz. Hodei Truk eta Hodei ere izango dira. Guztiek batera ere abestuko dute eta hau ere estreinaldia izango da. Enrique eta David Azurza ariko dira zuzendari lanetan. Eta Xabier Zeberio, Peio Ramirez eta Arkaitz Mendozza izango dira musikariak.

→ Laburrak

Udalaren aurtengo azken Osoko Bilkura, asteartean

IBARRA ▶ Udalak Ohiko Osoko Bilkura egingo du datorren asteartean, hau da, hilaren 28an. Batzarra udaletxean izango da, 09:00etan. Egunekei gai zerrenda ondorengo puntuek osatzen dute: Aurreko akta onartzea; Alkate dekretuen berri ematea; 2011ko Aurrekontu Orokorra eta aurrekontua egikaritzeko Udal Araudia; 2011ko Plantilla Organikoa; 2011ko udaleko lanpostuen zerrenda eta EAJk aurkeztutako mozioa (diru-sarrerak bermatzeko errenta gabe utzi).

Ikastaro ireki bat antolatu du Alurrek hilaren 28rako

IBARRA ▶ Alurr dantza taldeak ikastaro bat emango du datorren asteartean, hilak 28. Saio irekia izango da, nahi duen orori zuzendua. 20:00etan hasiko da eta 22:00etan amaitu. Dantza taldearen lokal zaharrean egingo duten eskolan Xapeloatz Lanz, eta beste hainbat plazako dantza irakatsiko dituzte. Ikastaroaren helburua da, Alurr dantza eskolan aritzen diren haurren gurasoei dantza horiek erakustea.

2011 agenda

Dagoeneko salgai!

12€

- Liburu dendetan
- www.euskalherrikoplaza.com

Ezaugarriak:

- Hiru urtetako egutegia
- Intereseko telefonoak
- Euskal Herriko errepide mapa
- Aste osoa ikusgai

Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**

9. Ola industria sektorean Udalak burutuko ditu urbanizatze lanak

Ogi Berri enpresa herrian gelditzeko onartu du Udalak urbanizatze dokumentua

Imanol Garcia Amezketa

Amezketako Udalak azkeneko osoko bilkuran gai garrantzitsuak onartu zituen. Alde bateatik, 2011ko aurrekontuei onarpena eman zion eta, bestetik, 9. Ola industria sektorean Urbanizatze-ko Jarduketa Programa (UJD) dokumentuaren hasera onarpena eman zion.

Azken gai hori, Jesus Iñurrieta alkateak azaltzen duenez, «oso garrantzitsua da guretzat». Plan orokorrean zehaztu zenez, Ola eremuan industriagune berria jartzeko aukera dago. «Ogi Berri enpresak Amezketa gelditu nahi du eta horretarako pabilioi handiagoa behar du», dio alkateak.

Industriagunea egitea dagoen lurzorua jabeak «ez du nahi aurrera eraman proiektua». Lur-jabeak promotorearen papera

egin dezake edo lurra saldu promotore bati industriagunea hark egiteko. «Ez da ezer egiten ari», gaineratu du Iñurrieta. «Udalarentzat oso garrantzitsua da Ogi Berri herrian geratzea eta horregatik erabaki dugu urbanizazioa udalak berak egitea eta horretarako UJP dokumentua onartu dugu».

Urbanizatzearen kostua lurjabearentzat izango da. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, hoguei eguneko epea du lurjabeak alegazioak jartzeko.

Datorren urteko aurrekontuari dagokionez, ia milioi bat eurokoa onartu du udalak, 987.645 eurokoa hain zuzen. «Aurreko urteko antzekoak dira», azaldu du alkateak. Ezberdintasuna inbertsioak izango dira eta arlo horretara 186.000 euro bideratuko ditu.

Guztira lau inbertsio egingo dira. Alde batetik argiteria. Kontsumoaren gastua %25 jaitsi nahi du udalak eta horretarako 90 bat lanpara berri jarriko dituzte, 160 watt kontsumitu beharrean 40 watt kontsumituko dutenak. Horretan 41.000 euro inbertituko dira. Beste inbertsio bat baserriko zenbait bideetan brea botatzea

izango da, hormigoizko bideak irristakorregiak direlako. Buzoiak ere aldatuko dituzte. Horretara 50.000 euro bideratuko ditu. Bestalde, Herri Zentroaren bigarren fasea hasiko dute, liburutegia, ludoteka eta KZgunea egokituz. Horretan 75.000 euro inbertituko ditu. Azkenik, Jose Mari Otermin Amezketako etxeen historiari buruz idazten ari den liburua argitaratzeko 20.000 euro bideratuko ditu udalak.

Hileta zibilak egiteko aukera

Osoko bilkuran onartutako beste puntua hileta zibilena izan zen. Gipuzkoako Batzar Nagusiek udalei gomendatu die herritarren eskura jar ditzatela hileta zibilak egiteko toki publiko egokiak, hala eskatzen dutenei aukera eskaintzeko.

Amezketako Udalak, gomendioari jarraituz, Herri Zentroaren areto nagusia izendatu du horretarako egokitzat. Beraz, aretoa zerbitzu horretarako erabili nahi duenak alkateari zuzendu behaiko dio eskaera formala, eta zerbitzua gauzatzeak dakartzan gastuak eskatzailearen gain joango dira.



Amezketako egutegian azaltzen diren zenbait argazki. NELI IVANOVA/SARA GOMEZ

Udal aldizkaria eta egutegia etxeetara

Erredakzioa Amezketa

Udalak herriko egutegia eta udal aldizkaria banatu ditu egunotan etxeetara. Aldizkaria, hamargarrena, Udalak ateratzen duen azken izango da, alearen agurrean azaltzen denez. 28 orrialdeetan Udalaren batzordeen jardunari buruz azalpenak ematen dira. Hala, kultura, hirigintza, ekono-

mia eta agenda 21 alorretako albiste berri ematen du. Horrez gain, beste zenbait gai modu laburrean azaltzen ditu eta zenbait mozio berri ere ematen du.

Aldizkariaren bigarren zatian legealdian egindako lanen errepaso egiten du Udalak. Gai hauek jasotzen dira: mugikortasuna eta irisgarritasuna; ura; energia; gizarte zerbitzuak; adinekoak gogoan; hezkuntza; herriko ondarea; kultur eskaintza; euskara; krisiaren eraginez gerorako geratu direnak; udal kudeaketa; komunikazioa eta parte-hartzea; legealdiko inbertsio garrantzitsuenak; eta legealdiko emaitza ekonomikoak.

Udal egutegiari dagokionez, azaleko argazkia Neli Ivanovak egin du eta barnean daudenak Sara Gomezek. Egutegian herriko informazioa (herriko argazkiak, bertsoak...) eta udal informazioa (batzordeen eta osoko bilkuren datak, zabor berezien biltzea egunak...) biltzen dira.



9. Ola industria sektorean egun hormigoizko hainbat elementu daude. I. GARCIA

pintura eta papereztatzeak

Jose Luis Martin

p.k. 20400-ibarra

tel.: 647 023 694

Geltoki

fisioterapia zentroa

Eider Amondarain Larrinaga
Naia Olatea Amonaritz

Tel.: 943 249 692
Batxiller Zaldibia 12 behea
Tolosako tren geltokiaren ondoan.

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!!

- Akupuntura
- Terapia eskuz
- Errehabilitazioa
- Gernu inkontinentzia
- Kirol masajea eta terapeutikoa
- Erditze aurreko prestaketa eta ondorengo tratamendua

itzulnet

ITZULPEN ZERBITZUAK

lurre auzoa 20-21, Tolosa
www.itzulnet.net

AZKARTASUNA ETA KALITATEA

HIZKUNTZA KONBINAZIO UGARI ETA PREZIO LEHIAKORRAK

BEHERAPENAK BOLUMEN ETA MAIZTASUNARENGATIK

Igandean irekiko du Laskorainek Merkatu Txikia

Ekuadorreko Guayas eskualdeko Duran herrira eta Sahara askeko Miyira bideratuko dute dirua

Erredakzioa Elkartasuna

Azken urteetan bezala Laskorain ikastolak Merkatu Txikia jarriko du Tolosako kultur etxean jendek emandako arropa, jostailu, liburu eta produktu desberdinekin. Honetaz gain, denda, taberna, lantoki, finantza erakunde eta bestelakoetan ere ibili dira eske-


an jasotako guztia salgai jarri eta diru horrekin proiektu desberdinak finantzatu ahal izateko. Igandean, hilak 26, irekiko dute eta urtarilaren 9a bitarte egongo da zabalik honako ordutegiarekin: 10:00 etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

15. edizioa

Aurtengoan 15. edizioa izango da, baina Laskorain ikastolako ikasle zein irakasleek lehen eguneko ilusio bera dute. Irakasleek agertutakoaren arabera, euren asmoa «gure ikasleen balioak, jarrerak, emozioak eta portaerak poliki-poliki hobera aldatzea» da, horreta-

rako «gauzekiko, pertsonekiko eta ideiekiko» errespetua bultzatuz.

Aurtengoan biltzen duten dirua bi proiektuetara bideratuko



Iazko Merkatu Txikia. E. EZBEZA

dute. Batetik, ikastolako ohiturei jarraiki, Ekuadorreko Guayas eskualdeko Duran herrian zentro soziokulturala eraikitzeke laguntza bidaliko dute. «Lurralde horretan ezjakintasuna handia da eta emakume zein haurrak gizonezkoen menpe daude», argitu dute. Bestetik, Sahara askeko Miyik herrian lehen hezkuntzako ikastetxe baten eraikuntza eta ekipaia lortzeko ere bidaliko dute dirua.

Era berean, aipatu behar da Merkatu Txikiak Aranburu jauregian dagoen Angel Cuerdoren erakusketarekin bat egiten duela. Cuerdok bere bidaietan atera-

tako argazkiekin erakusketa jarri du eta lanak salgai daude, biltzen duen dirua Tolosaldea Sahararekin elkarteari emango diolarik. Aipatu behar da baita, bideoak eta panel informatiboak izango direla Merkatu Txikian eta horrez gain, bi hitzaldi ere antolatuta dituztela. Lehen aza den asteazkenean izan zen eta bigarrena berriz, urtarilaren 4an izango da. Bertan Tolosaldea Sahararekin elkarrekin bere proiektu desberdinen aurkezpena egingo du 19:00etan Aranburu jauregian.

Merkatu Txikian soberan gertatzen dena Saharara eta Emausera bideratuko dute.

Xabi Alonso futbolaria omenduko dute igande goizean

11:00etan hasiko da ekitaldia; lehenengo udaletxean bilduko dira eta ondoren, Usabal kiroldegira joango dira

Erredakzioa Futbola

Tolosako Udalak Xabi Alonso futbolari tolosarra omenduko du igande honetan. Ekitaldia 11:00etan izango da udaletxean.

Lehenik eta behin udal ordezkariak harrera egingo diote uda-

letxean bertan, bere lagun, senitarteko eta, oro har, herritarren artean.

Ondoren, oroigarri bat emango diote eta gero, udaletxetik Usabal kiroldegira joango dira guztiak.

Shanti Torneoa

12:00etatik aurrera izango da Usabalgo ekitaldia, ordu horretan bere izena daraman plaka erakutsiko baitute.

Bukatzeko Shanti Torneoaren hasiera dela eta, txapelketako ohorezko satea egingo du.

Ioseba Rojok Munduko Kopan hartu du parte

Bere anaia, Imanol, Austrian izan da eta FIS zerrendarako puntu asko eskuratu ditu

Erredakzioa Eskia

Ioseba Rojo eskiazaile tolosarra bere ametsetako bat bete berri du. Izan ere, joan den asteburuan iraupen-eskiko Munduko Kopako proba batetan parte hartzeko aukera izan zuen.

Zehazki, Frantziako Alpeetan kokatzen den La Clusaz izeneko herrian, 30 kilometroko lasterketa egin zuen, estilo askean eta 10.000 ikusleren aurrean. Lasterkariaren artean iraupen-lasterkari hoberenak zeudela ere nabarmandu behar da.

Lasterkari frantziarrak izan ziren hasierako martxa jarri nahi izan zutenak, baina helmugan errusiarrak, norvegiarrak, suitzarrak eta txekiarrak izan ziren lehenengo postuak eskuratu zituztenak.

Munduko Kopan aritzeko au-

kera, dena den, lan askoren ondoren iritsi zaio Rojori. Orain hilabete asko hasi zen entrenamenduak eta rolleski lasterketak eginen, elurretan eta altituden elkarretaratzeak ere egin izan ditu eta azaroan lehenengo lasterketak ere egin zituen Finlandian.

Abenduan aldez, Suitza eta Italian izan zituen lasterketak eta ondoren iritsi zaio Munduko Kopan parte hartzeko aukera.

Ioseba Rojo orain etxean da baina egun gutxi emango ditu bertan urtarilaren lasterketa gehiagorekin hasiko baita. Estoniara joango da 23 urtez azpiko Munduko Txapelketan parte hartzera.

Bestalde, bere anaia, Imanol, Espainiako Selektzio Absolutuan dago baita ere eta egutegi berbera eduki du, baina azken asteburuan Austrian aritu da FIS zerrendarako puntu asko lortuz.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTUAK

MAHALA BASERRIA - LEABURU - GIPUZKOA - T. 943 670 724 - WWW.MAHALANATURALA.COM

Abenduaren 31ko manifestaziorako deia egin dute

Oraingoan Aiztondo Bailarako herritarrek egin dute deialdia. 19:00etan Errebote plazatik abiatuko da

Erredakzioa Villabona

Duela egun batzuk, Aiztondo Bailarako Etxerateko kideak izan ziren euskal presoaren Euskal Herriartea eta euren eskubideak aldarrikatzeko deitu dituzten mobilizazioen berri eman zutenak. Orain, Aiztondo bailarako herritarren txanda izan da. Villabonako Bear Zana pilotalekuan elkartu ziren eta herritarrez gain, Udal ordezkariak ere bertan izan ziren.

Etxerateko kideekin bat eginenez, manifestua irakurri zuten eta herritar guztiei urteko azken egunean egingo den manifesta-

zioan parte hartzeko deia egin zuten. Mobilizazioa 19:00etan abiatuko da Villabona Errebote plazatik.

Era berean, azken ostiralak gozatu nahi izan zituzten eta aurreten azkena, hilaren 31a izango dela nabarmendu. Azkenik, urtariraren 8an egingo den manifestazio nazionalera joateko deia ere egin zuten.

«Bisitarik gabe geratu da»

Haimar Altuna euskal presoaren neska-laguna bistarik gabe geratu dela jakinarazi dute. Huelvako espetxean dago lizartzarra eta bisitara sartu aurretik «katxeatzera behartu» nahi izan zuten. Neska-lagunaren «ezetzaren» ostean, bisita ukatu zioten. 2.000 kilometroko bidaia alferrikakoa izan zen. Urte sasoi honetan egonagatik ere, «espetxe politikak berdin jarraitzen duela» salatu dute.



Etxeraren ostean, orain Aiztondo bailarako biztanleak deitu dute. HITZA

→ Laburrak

Aizkolari gazteen arteko txapelketak igandean

LEITZA » Amazabal pilotalekuan, Lehenengo Gabonetako Aizkolari Txapelketa jokatu da. Igandean izango da eta 12:00etan hasiko da. Zortzi aizkolari gazte nafar lehiatuko dira: Goizeder Beltza, Ander Erasun, Julen Kañameres, Oihan Larretxea, Xabier Mindegia, Asier Pellejero aresoarra eta Arkaitz Olano eta Ruben Saralegi leitzarrak. Bestetik, gaztetxoan mailako Eusko Label Binakako Aizkora Txapelketa ere jokatu da. Lau bikote ariko dira: Eneko Saralegi leitzarra eta Iker Vicente, Eneko Otaño eta Iker Zabaltaren aurka.

Oinatz Bengoetxea eta Irujoren aurkako partida

LEITZA » Bihar arratsaldean Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatu dute buruz buruko Kutxa Masterseko finaleko partida. Bengoetxea VI.a eta Martinez de Irujo iritsi dira finalera. Egu-berri egunean jokatu den partidarako pilotak aukeratu dituzte jada.

Astelehenean 19:00etan herri batzarra egingo dute

IRURRA » Udalak deituta, hilaren 27an, herri batzarra egingo dute. 19:00etan hasiko da eta lehen puntuan Plaza autoentzatzat ixtea izango da jorratuko duten gaia. Ondoren, 19:30ean, Iruako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra aurkeztuko dute. Planaren egileak ere bertan izango dira. Herritar guztiei dei egiten zaie bertan parte hartzeko.

Irudia » Villabona



ZILARREZKO Q SARIA

Zilarrezko Q saria jaso zuen Jesusen Bihotza ikastolak hilaren 16an Barakaldoko BECen. Saria Kontxi Ormazabal zuzendariak jaso zuen Ozkariz Hezkuntza sailburuordearen eskutik. Zuzendaritza Taldearen babesarekin batera, guraso eta irakasleen ordezkariak izan zuten gertu. Brontzezko, Zilarrezko eta Urrezko Q Kudeaketaren Euskal Sariak banatu zituzten. HITZA

Irudia » Villabona



URTEA ONDO BUKATU DUTE

Hilaren 18an, Eguberri Trofeoa Txapelketa (Burgos) jokatu zen. Bertan, Burgoseko Sol y Luz eta Danena Halterofilia Taldeak izan ziren. 15 urte azpiko mailan, Asier Gallegok 2. postua eta Junior Santanak lehena eskuratu zuten. 17 urte azpiko mailan, hurrenez hurren Adrian Sasiain, Kellyam Quintana eta Joseba Arrate sailkatu ziren. Junior mailan, Igor Sasiain lehen eta Iker Hernandez 2. sailkatu ziren. Senior mailan, Francisco Gonzalez izan zen lehena. HITZA



Hilberriak



IÑAKI TELLERIA ARANA

JAUNA

Abenduaren 23an hil zen, 53 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.



Mendi gaineko distira azaldu zaigu argira izar handi hori jeltsi dezagun berak utzitako kabira.

Zure lagun miñak: Javier eta Isabel, Julian eta Begoña.

Haren animaren alde, otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitez-tela, ASTELEHENEAN arratsaldeko ZAZPIETAN, Tolosako SANTA MARIA parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Tolosan, 2010eko abenduaren 24an

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakoitzak bere neumiko hileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider gareniz, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erabazteko izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

‘Aizkora.com’ ataria iritsi da Leitzaldera eta Tolosaldera

Antton Espelosin sunbillarrak sortu du eta Leitzan aurkeztu dute Gabriel Saralegiren laguntzarekin

Asier Imaz Leitz

Aizkora kirol desberdina da. Bakarra. Protagonistari bere neurria urteetako sufrimenduak eman beharrean, hamarkadetakoei ematen diote.

Ikusi besterik ez dago bestela, 51 urterekin, aurtengo Euskal Herriko txapela nork irabazi duen. Hori bai, dinosauro mitikoak desagertzeaz aurkitzen dira; oraingoan bai, gazteak iritsi dira eta aizkorak bazuen horren beharra.

Antton Espelosin sunbillarrak ere behar bati erantzunez argitaratu zuen *Aizkora. Apustuak eta Txapelketak, 1949-2009* liburua urte hasieran, 700 orrialdeko lana. Aizkoraren historia inork ez du horrela inoiz kontatu, ez behintzat horren zabal eta berejatorrizko hizkuntzan, hau da, euskara hutsean. Eta dena esan behar baldin bada, honen beharra ere bazegoen.

Gabriel Saralegi leitzarrak zerbait badaki hutsune honen inguruan: «Lan hau beharrezkoa zen. Euskal Herriko jokoen inguruan argitaratu dira beste liburu batzuk, baina hemen aizkora bakarrik agertzen da. Horrek datu eta anekdota gehiago kontatzeko aukera ematen dizu. Horretan gabil-tzanontzat behinik behin, oso garrantzitsuak dira datu guzti horiek: nork jartzen zuen egurra, nondik ekartzen zuten eta abar luze bat. Oso interesgarria da. Izugarrizko lana egin du Antton-neko».

‘Aizkora.com’

Liburuaren egileak Leitzako aizkolarari ohiaien laguntza izan du webgunearen aurkezpenean.

Espelosinen esanetan, *aizkora.com* arestian aipatutako liburuaren harira sortuzen: «Liburuari ongi ari da saltzen, baina aukera hori zabaldu egin nahi nuen. Horrela, webgunean sartzean, liburuaren inguruko informazio guztia aurkitzen da. Etxean jasotzeko berriz, 35 eurotan, nahikoa da nirekin harremanetan jartzea, eta hori ere *aizkora.com*-en bidez egin daiteke».

Webgunera sartzean, *Harremana* atalean klikatuz gero, Antton Espelosinen telefonoa eta helbidea aurkitzen dira. Hortik aurrerako guztiaz, sunbillarra arduratzen da.

700 orriren bueltan, 60 urte horietako apustuen eta txapelketen datuak, bitxikeriak eta argazkiak aurkitzen dira. Lan horretan aizkolarien laguntza zuzena izan duela onartzen du Espelosinek, «eta eskertu beharrean aurkitzen naiz, dirurik eskatu gabe utzi baidate eskatutako guztia». Eta zinez irudi ederrak aurkitzen dira



Antton Espelosin, liburuaren eskuan duela, eta Gabriel Saralegi 'aizkora.com'-en aurkezpenean. A. IMAZ

liburuan, zer pentsatua ematen duten horietakoak.

Latasa handia

Mundu honenganako afizioa herrian bertan sortu zitzaion Espelosini, historiako aizkolaririk handienetakoari esker: «Baserritik kalera jaistean, Latasa entrenatzen ikusten nuen. Batzuetan bakarrik eta besteetan gazte bati erakusten. Orduan hasi zitzaion aizkora gustatzen».

Urte guzti hauetan gertatu diren aldaketen inguruan, sunbillarrak ikusleak eta gazteak aipa-

tzen ditu: «Lehen izugarrizko jendetza biltzen zen. Gero jendea nekatu edo ez dakit zer egin zen eta aizkora galtzeaz egon zen. Orain berriz, azken zazpi edo zortzi urtetako lanari esker, gazte batzuk indar handiarekin heldu dira, eta aizkora lehengo lekutik gertu uzten hasiak dira. Gabriel eta honen antzeko beste batzuen lanari esker izan da hori».

Gazteek aurten lortutako emaitzek, Olasagastiren txapelak baino gehiago poztu dute Espelosin: «Gipuzkoako bigarren mailan, txapelduna Ugaitz Mugertza gaztia izandu da; Nafarroako txapelketan, finalisten artean hiru gazte aurkitzen ziren eta bigarren mailan, seitek lau ziren gazteak. Lehengo horiek baztertu nahian dabilta, bere lekua hartuz. Aurtengo denboraldian salto hori nabaritu da eta horrekin gertatzen naiz. Datorren urtean gainera, oraindik eta salto handiagoa ikusiko dugulakoan nago». Espelosinek aipatutako ezkutuko lan hori ongi ezagutzen du Gabriel Saralegik. Azken urte luzeetan gogor ari da gazteekin lanean leitzarra. Arritzeko moduko datu bat ere esaten du Saralegik: «Aizkora herrietako saioetatik bizi da».

Izan ere, kirol honek kostu ekonomiko altua dauka: entrenamenduetarako egurra, materiala eta abar. Gai honen inguruan ondorengo hausnarketa egiten du leitzarrak: «Aizkoran hasten zarenean hiru edo lau urte egiten badituzu, hori ez da deuse. Eta hamar egin ezker, zer? Lehenik dakienak transmititu behar du eta ondoren norberak jakintza hori garatu. Horretarako zenbat denbora behar da? Begira hor goian dabilzan horiei. Hau bizimodu bat da; aizkora bizitzaren parte bilakatzen da. Inor bizi al daiteke honetatik? Inor ez».

«Orain arte diru pixka bat egin duenak zortea izan du. Egun txapelketak, ahal diren moduan antolatzen dituzte federazioek. Saria neurri motxekoak dira beste kirolekin alderatuz, eta egurrak erosteko nola moldatu? Herrietako saioak egiten ez da asko kobratzen baina pixka bat bai; urte amaieran diru hori bildu eta hortik erosten da materiala. Mundu honetan aritzeko, asko gustatu behar zaizu aizkora. Anttonen kasua argigarria da; bera bakarrik hor ibili da batetik liburuaren eginez, bestetik probak antolatuz edo aizkoraren inguruko eskultura bat herrian jarritz, gaineratu du.



Leitzan jokatu zen Vasco Navarrr Txapelketa 1968an. AIZKORA.COM

Eguberri
hauetan
oparitu
HITZAko
harpidetza!



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**

bertako egunkaria
egin harpidetza:

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

Gure Tolosako bulegoan ere baduzu aukera:

Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa



GOIZA	LAINDAK
ARRATSALDEA	EGUZKIA
BEROENA	3º
HOTZENA	-2º

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldean@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzea, harpidetun egitea): **902 82 02 01**

Agenda

BERTSOLARITZA

■ **Ibarra.** Bertso saioa, etzi 17:30ean, Belabietan. Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Sus-trai Colina, Maialen Lujanbio, Ion Maia eta Amaia Agirrerekin.

IKUSKIZUNAK

■ **Tolosa.** Poxpolo eta Konpaignariari *Segi Jotzen* ikuskizuna, etzi, 12:00etan eta 17:00etan, Leidor aretoan.

MUSIKA

■ **Tolosa.** Tolosako Musika Bandaren Eguberri kontzertua, gaur 12:00etan, Zerkausan. Eguberri kalejira, 20:00etan.

■ **Tolosa.** Hodeiertz abesbatzak Hodei truk, Hodei truk Samaniego eta Hirukide abesbatzekin batera, besteren artean, Eguberrietako kontzertua eskainiko du, etzi, 19:30ean, Santa Klara elizan.

ZINEMA

■ **Tolosa.** Leidor aretoan, bihar: 19:30ean eta 22:30ean, *Tron: Legacy*. Etzi, igandea: 19:30ean eta 22:00etan, *Tamara Drewe*. Astelehena (ikuslearen eguna): 20:30ean, *Tron: Legacy*.

■ **Villabona.** Gurea aretoan, etzi, igandea: 16:30ean *Animal Chanel* (euskaraz) eta 19:30ean, *Amerikanuak* (euskaraz eta gaztelaniazko azpituluekin). Astelehenean, 21:30ean, *Amerikanuak*.

Irudia Altzo



SASKIA JAUREGI TXIKIRA

Altzoko Udalak urtearen bukaeran herritarren artean zozketatu ohi duen saskia banatu du. Jauregi Txiki baserriko Murua Pagola sendiari egokitu zaio saskia, 50 zenbakia izan baita saritua. Sendiko Martxa Muruak jaso du saskia. HITZA

Farmaziak

GAUR

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

BIHAR

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

ETZI

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarre-

ta, 1. Telefono zenbakia: 943 67 36 49.

■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

ASTELEHENA

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo, 2. Telefono zenbakia: 943 67 01 28.

■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxe bulegoa

BERRIA taldeak zure laguntza behar du

HITZAk inoiz baino irakurle gehiago ditu, baina inoiz baino baliabide ekonomiko gutxiago. Interneten eta paperean, gure komunikazio proiektuak berri eta indartu ditugu udazkenean. Apustu hau aurrera ateratzea da, zuekin batera, gure erronka.

Ekarpena egiteko bideak

50 € • 100 € • edo nahi duzun kopuruarekin

Lagundu
gaitzazu
ekonomikoki

- **Transferentzia Euskadiko Kutxan:**
3035 0060 48 0600113162
(izen-abizenak zehaztu)
- **Kreditu txartelaren bidez:**
zuzaraberria.info webgunean

**Bihar ere euskaraz
bizitzeko tresnak
izan ditzagun!**



berriketan.info



www.berriketa.info

amaika
www.euskalherriko
pLaza.com

iragarkilaburak.com

IRAGARKI LABURAK

berria
taldea